

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**107/2016 Foru Agindua, apirilaren 27koa, onartzen duena bete direla Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren abuztuaren 11ko 313/2015 Foru Aginduak, Haraneko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 8. aldaketaren espedientea behin betiko onartu zuenak, ezarritako baldintzak, katalogatu gabeko eraikinetan berreraikitze eta aldatze esku hartzei aplikagarri zaizkienak**

#### AURREKARIAK

Lehenengoa. Abuztuaren 11ko 313/2015 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartu zen Haraneko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 8. aldaketaren espedientea, katalogatu gabeko eraikinetan berreraikitze eta aldatze esku hartzeetan kontuan izan beharreko hirigintza eta eraikitze parametroei buruzkoa.

Bigarrena. 313/2015 Foru Agindu horrek berak, adierazitako baldintzak funtsezkoak ez zirela iritzita, ezarri zuen, haiek zuzendu eta gero, espedientea foru aldundira igorri beharko zela, jendaurrean jartzeko izapidetik berriro pasatu gabe, haren betearazte indarra adierazteko, izapideak egiteko eta argitara emateko.

Hirugarrena. 2016ko apirilaren 15ean sartu zen aldundi honen erregistroan espedientearen testu bateratua.

#### OINARRIAK

Aurkeztutako agiriak aztertu dira, eta egiaztatu da bete direla foru agindu horretan ezarritako baldintzak.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetzat ematea Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren abuztuaren 11ko 313/2015 Foru Aginduak, Haraneko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 8. aldaketaren espedientea behin betiko onartu zuenak, ezarritako baldintzak, katalogatu gabeko eraikinetan berreraikitze eta aldatze esku hartzeetan kontuan izan beharreko hirigintza eta eraikitze parametroei buruzkoak.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, hirigintza araudiarekin batera.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta beraren aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 27a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**

**HARANEGO UDALERRIKO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN 130.,  
131. ETA 132. ARTIKULUEN 6.3 ETA 6.4 PUNTUENTESTU BERRIA****130. artikulua. OD.2 ordenantza – Eraikin metatuko zona. SUR-2**

6.3. Katalogatu gabeko eraikinak berriz eraikitzeko eraikuntza esku hartzei aplikatu beharreko baldintzak (hirigintza eta eraikitze parametroak).

a) Berreraikitze esku hartzeak 6.2 puntuan ezarritako oin berriko esku hartzei aplikatu beharreko hirigintzako eta eraikuntzako parametroak bete beharko dituzte.

b) Abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketara babestuei buruzkoan, ezarritakoa beteko da.

6.4. Katalogatu gabeko eraikinak aldatzeko eraikuntza esku hartzei (salbu berreraikitzeari) aplikatu beharreko baldintzak (hirigintza eta eraikitze parametroak).

a) Artikulu honen aurreko puntuetan adierazitako baldintza orokorren arabera antolamendutik kanpo dauden eraikinetan edo planeamenduarekin bat ez datozen arau hauen 66. artikuluan edo ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, lurzoruen edo hirigintzarenaren, 101. artikuluan zehazten diren esku hartzeak egin ahal izango dira.

b) Planeamenduarekin bat datozen edo antolamendutik kanpo ez dauden eraikinetan, bizitegiarako zaharberrietako eraikitze esku hartzeak abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan, ondare urbanizatua eta eraikia zaharberrietako jarduera babestuari buruzkoan, ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Gutxieneko azalera erabilgarriak eta babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) diseinatzeko indarrean dagoen araudian aurreikusitako bizigarritasun baldintzen betetzeak zehaztuko dute birgaitzearen ondoriozko etxebizitzaren gehieneko kopurua. Gutxienez, garaje plaza bat izango da 100 metro koadro etxebizitzako, baldin eta zaharberrietako beharreko etxebizitzaren morfologiak horrelakorik ahalbidetzen badu.

Lurzati bakar baten barruko nekazaritza multzoen kasuan, birgaitu daitezkeen multzo horietako zati edo bolumenen (eraikin nagusiak eta osagarriak) planoen eta kudeaketa fitxen proposamena aurkeztuko da. Eraikin nagusiz hartzea alda daiteke, hori justifikatzeko agiriak aurkeztuta.

Birgaitutakoa eraikin nagusia bada eta lan horien ondorioz egun dauden baino etxebizitza gehiago egiten badira, eraikitze- eta urbanizazio-proiektuarekin batera eraikin nagusi horri atxikirik dauden eraikin laguntzaile txikiagoak eraisteko proiektua aurkeztuko da. Aurrekoa gorabehera, eraikin laguntzaile horiei eutsi egin ahal izango zaie, baldin eta jarduketa proiektu bateratuan aintzat hartzen bada horiek eraikin nagusiaren diseinu eta amaierari egokitzeko eta harmonizatzeko eta hartan integratzeko beharra.

Eraikin nagusiko etxebizitzak birgaitzeaz gain oin berriko eraikitze esku hartzeak egin daitezkeen lurzatiaren, ezinbestekoa izango da, tamaina gorabehera, eraikin laguntzaileak eraistea.

Daukan erabilera onartutakoren batekin ordezkatu daiteke, jardun eta hirigintza proiektu komuna aurkezten baldin bada.

Aldatzeko edo birgaitzeko esku-hartze guztiak onartuko dira. Erabilera aldatzean, etxebizitza kopurua handitzean edo obra handia egitean, ordea, lurzatiaren kanpoaldea hiritartzeko eta arau hauetan xedatutako atzeraemateak eta lagapenak betetzeko eskatuko da.

**131. artikulua. OD.3 ordenantza – Eraikin barreiatuko zona. SUR-.3**

6.3. Katalogatu gabeko eraikinak berriz eraikitzeko eraikuntza esku hartzei aplikatu beharreko baldintzak (hirigintza eta eraikitze parametroak).

a) Berreraikitze erakuntzako esku hartzeek 6.2 puntuan ezarritako oin berriko esku hartzei aplikatu beharreko hirigintzako eta erakuntzako parametroak bete beharko dituzte.

b) Abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoan, ezarritakoa beteko da.

6.4. Katalogatu gabeko eraikinak aldatzeko erakuntza esku hartzei (salbu berreraikitzeari) aplikatu beharreko baldintzak (hirigintza eta eraikitze parametroak).

a) Artikulu honen aurreko puntuetan adierazitako baldintza orokorren arabera antolamendutik kanpo dauden eraikinetan edo planeamenduarekin bat ez datozenetan arau hauen 66. artikuluan edo ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, lurzoruaren edo hirigintzarenaren, 101. artikuluan zehazten diren esku hartzeak egin ahal izango dira.

b) Planeamenduarekin bat datozen edo antolamendutik kanpo ez dauden eraikinetan, bizitegitarako zaharberrietako eraikitze esku hartzeek abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan, ondare urbanizatua eta eraikia zaharberrietako jarduera babestuari buruzkoan, ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Gutxieneko azalera erabilgarriak eta babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) diseinatzeko indarrean dagoen araudian aurreikusitako bizigarritasun baldintzen betetzeak zehaztuko dute birgaitzearen ondoriozko etxebizitzaren gehieneko kopurua. Gutxienez, garaje plaza bat izango da 100 metro koadro etxebizitzako, baldin eta zaharberrietako beharreko etxebizitzaren morfologiak horrelakorik ahalbidetzen badu.

Lurzati bakar baten barruko nekazaritza multzoen kasuan, birgaitu daitezkeen multzo horietako zati edo bolumenen (eraikin nagusiak eta osagarriak) planoen eta kudeaketa fitxen proposamena aurkeztuko da. Eraikin nagusizat hartzea alda daiteke, hori justifikatzeko agiriak aurkeztuta.

Birgaitutakoa eraikin nagusia bada eta lan horien ondorioz egun dauden baino etxebizitza gehiago egiten badira, eraikitze- eta urbanizazio-proiektuarekin batera eraikin nagusi hori atxikirik dauden eraikin laguntzaile txikiagoak eraisteko proiektua aurkeztuko da. Aurrekoa gorabehera, eraikin laguntzaile horiei eutsi egin ahal izango zaie, baldin eta jarduketa proiektu bateratuan aintzat hartzen bada horiek eraikin nagusiaren diseinu eta amaierari egokitzeko eta harmonizatze eta hartan integrazteko beharra.

Eraikin nagusiko etxebizitzak birgaitzeaz gain oin berriko eraikitze esku hartzeak egin daitezkeen lurzatietan, ezinbestekoa izango da, tamaina gorabehera, eraikin laguntzaileak eraistea.

Daukan erabilera onartutakoren batekin ordezkari daiteke, jardun eta hirigintza proiektu komuna aurkezten baldin bada.

Aldatzeko edo birgaitzeko esku-hartze guztiak onartuko dira. Erabilera aldatzean, etxebizitza kopurua handitzean edo obra handia egitean, ordea, lurzatiaren kanpoaldea hiritartzeko eta arau hauetan xedatutako atzeraemateak eta lagapenak betetzeko eskatuko da.

### **132. artikulua. OD.4 ordenantza – Eraikin barreiatuko zona. SUR-4**

6.3. Katalogatu gabeko eraikinak berriz eraikitze erakuntza esku hartzei aplikatu beharreko baldintzak (hirigintza eta eraikitze parametroak).

a) Berreraikitze erakuntzako esku hartzeek 6.2 puntuan ezarritako oin berriko esku hartzei aplikatu beharreko hirigintzako eta erakuntzako parametroak bete beharko dituzte.

b) Abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoan, ezarritakoa beteko da.

6.4. Katalogatu gabeko eraikinak aldatzeko erakuntza esku hartzei (salbu berreraikitzeari) aplikatu beharreko baldintzak (hirigintza eta eraikitze parametroak).

a) Artikulu honen aurreko puntuetan adierazitako baldintza orokorren arabera antolamendutik kanpo dauden eraikinetan edo planeamenduarekin bat ez datozenetan arau hauen 66. artikuluan edo ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, lurzoruaren edo hirigintzarenaren, 101. artikuluan zehazten diren esku hartzeak egin ahal izango dira.

b) Planeamenduarekin bat datozen edo antolamendutik kanpo ez dauden eraikinetan, bizitegitarako zaharberrietako eraikitze esku hartzeek abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan, ondare urbanizatua eta eraikia zaharberrietako jarduera babestuari buruzkoan, ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Gutxienerako azalera erabilgarriak eta babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) diseinatzeko indarrean dagoen araudian aurreikusitako bizigarritasun baldintzen betetzeak zehaztuko dute birgaitzearen ondoriozko etxebizitzaren gehieneko kopurua. Gutxienez, garaje plaza bat izango da 100 metro koadro etxebizitzako, baldin eta zaharberritu beharreko etxebizitzaren morfologiak horrelakorik ahalbidetzen badu.

Lurzati bakar baten barruko nekazaritza multzoen kasuan, birgaitu daitezkeen multzo horietako zati edo bolumenen (eraikin nagusiak eta osagarriak) planoen eta kudeaketa fitxen proposamena aurkeztuko da. Eraikin nagusizat hartzea alda daiteke, hori justifikatzeko agiriak aurkeztuta.

Birgaitutakoa eraikin nagusia bada eta lan horien ondorioz egun dauden baino etxebizitza gehiago egiten badira, eraikitze- eta urbanizazio-proiektuarekin batera eraikin nagusi horri atxikirik dauden eraikin laguntzaile txikiagoak eraisteko proiektua aurkeztuko da. Aurrekoa gorabehera, eraikin laguntzaile horiei eutsi egin ahal izango zaie, baldin eta jarduketa proiektu bateratuan aintzat hartzen bada horiek eraikin nagusiaren diseinu eta amaierari egokitzeko eta harmonizatzeko eta hartan integratzeko beharra.

Eraikin nagusiko etxebizitzak birgaitzeaz gain oin berriko eraikitze esku hartzeak egin daitezkeen lurzatietan, ezinbestekoa izango da, tamaina gorabehera, eraikin laguntzaileak eraistea.

Daukan erabilera onartutakoren batekin ordezka daiteke, jardun eta hirigintza proiektu komuna aurkezten baldin bada.

Aldatzeko edo birgaitzeko esku-hartze guztiak onartuko dira. Erabilera aldatzean, etxebizitza kopurua handitzean edo obra handia egitean, ordea, lurzatiaren kanpoaldea hiritartzeko eta arau hauetan xedatutako atzeraemateak eta lagapenak betetzeko eskatuko da.